

# BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua hitz batez definitu beharko bagenu **balioanitzakoa** izango litzake, bi arazo konpontzeaz gain erabiltzaile batzuentzat hirugarren funtzio bat garatu lezake tramankulu honek. Aterki sinple baten itxura duen tresna honek kalefakzio bat izateaz gain adineko eta ibiltzean gaitasun mugatukoentzat makulu gisa erabiltzeko aukera ematen digu.

Hainbat leku euritsuetan euriaz gain hotza egin ohi du eta ia-ia hori izan ohi da gogaikarriena, arazo honen aurka konponbide bakarra historian zehar arropa/osagarri gehiago jartzea izan da. Gaur egun gure berritasunaren bitartez arazo honi era efiziente eta eroso batean konpon dezakegu, hau izango da gure bezeroek gu aukeratzeko argudio/arrazoiak. Alderdi kuantitiboari baino gehiago kualitatiboari emango diogu garrantzia, gure marka bere kalitate onagatik ezagutua izatea nahiko genuke eta ez konpetentziako beste edozein bagina bezala.

Gure produktua aterki bat izango da eta honen makilean giltza bat izango du kalefakzio pizteko eta honen tenperatura erregulatzeko. Aterkia beste edozein aterkik baino material hobeez egongo da egina, oihal iragazgaitzaz gain egiten duen tenperaturaren arabera kolorez aldatuko den tinte batez margotua egongo da oihala. Gure aterkiko makila intxaurrondoaren zurez egongo da egina eta honek bere makulu funtzioa betetzeko zurruntasuna emago dio. Honelako produktu eskusibo eta baliagarri batek duen itxuraz gain erresistentzia handi bat adierazten du kontu bakarra asko ez kolpatzen saiatzea izango litzake eta horrez gain noizbait edozerren gatik zerbait gaizki notatuko balukete kalefakzioan lehenbailehen dendara ekartzea izango litzake ko menigarria. Aurreko pausuak jarraituko balira ez luke inongo arriskurik sortuko. Prezioari dagokionez 44,95€-tan salduko genuke gure produktua, hau da, konpetentziak baino 25€ garestiago. Nahiz eta, hasiera batean prezio altua dirudien xehetasunetan sartzen bagara gurea bezalako kalitatea duen aterki bat 30€-ko prezioa iristera irits daiteke, honez gain eskuko kalefakzio batek 25€ balio ditu eta guk bi zerbitzu hauek batean eta modu erosoan eskaintzen ditugu. Horregatik, uste dugu gure prezioa ondo kokatua dagoela eta bezeroek gure produktua erosteko beste arrazoi gisa erabili dezaketela.